

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 194/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea nekazaritzako ur baliabideak kudeatzeko laguntza lerroaren 2024ko deialdiari

Gobernu Kontseiluaren ekainaren 13ko 30/2023 Foru Dekretuaren bidez, nekazaritzako ur baliabideak kudeatzeko laguntzen oinarri arautzaileak onetsi ziren.

Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023rako gastuen aurrekontuan bada partida bat, 40101. G/452400/78100400 "Ureztatzeak modernizatzea" izeneko, saldo nahikoarekin. Hortaz, proposatzen da onestea laguntza horien 2024rako deialdia.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta, horregatik, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Inguru-nearen Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea nekazaritzako ur baliabideak kudeatzeko laguntzen 2024rako deialdia. Laguntzak Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 13ko 30/2023 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko dira, xehetasun hauekin:

a) Eskaerak aurkezteko epea: 20 egun baliodun, 2024ko deialdiaren erabakia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da.

b) Eskaerak aurkezteko modua eta lekua:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezarritakoa betez, laguntza eskaera telematikoki aurkeztu behar da izapide espezifikoaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez (<https://egoitza.araba.eus/es/-/ayudas-gestion-recursos-hidricos>).

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoan: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/autorizaciones>.

– Dirulaguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharrezko dokumentazioa: laguntza hau arautzen duten oinarrietan ezarritakoa (12.2. artikulua).

– Eskatzaile bakoitzak gehienez bi jarduketa egin ahal izango ditu, eta haien artean zehaztu beharko da lehentasuna. Eskaeran lehentasunik zehazten ez bada, lehenengo eskatutakoa lehentasunezkoa dela ulertuko da.

– Eskatzaile bakoitzeko diruz lagundu daitekeen gutxieneko zenbatekoa 1.500,00 euro izango da, eta gehienekoa 220.000,00 euro, proiektuak idazteko jarduketetan izan ezik, haietan ez baita muga hori aplikatuko.

– Hona hemen foru dekretu honetako laguntzaren oinarri arautzaileen 10. artikuluan ezarritako hautaketa irizpideei aplikatzekoak zaizkien haztapen koefizienteak:

IRIZPIDEA	HAZTAPEN KOFIZIENTEA
Ura aurrezte eta ur erabileraren eraginkortasuna hobetzea	2
Azalera	1
Modernizatzearen/hobetzearen maila ureztatzaile elkartean	1
Ingurumenari egiten zaion ekarpena – helburuak	1

– Kreditu erreserba: Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023rako gastuen aurrekontuko 40101. G/452400/78100400 "Ureztatzeak modernizatzea" partidaren kontura, urteka honela banatuta:

- 2024: 597.229,04 euro.
- 2025: 500.000,00 euro.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek neurri bakoitzean hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko ehunekoak izan daitezke gehienez ere.

Bigarrena. Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuari ahalmena ematea laguntza lerro honetarako deialdia garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena. Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jar dakioko erabakia hartu duen organoari berari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 9a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua

AMAIA BARREDO MARTÍN

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA